

Nafarkaria

• ostirala • 2000ko apirilaren 28a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Txantreako jaiak (6 eta 7 orrialdeak) • Jaiak gaur hasiko dira; gainera, auzoak aurten 50 urte bete ditu. Txantrearrek egitarau zabala izanen dute astelehena arte jai giroaz gozatzeko

Artearen eskola

Iruñean bada eskola bat non artea egiten irakasten baitute. Hobeki esanda, artea egiteko teknikak irakasten dizkiete ikasleei, eta gero hauek erabakiko dute artea egin edo lanbide teknikoagoa izanen ote duten. Iruñeko Arte Eskola 1828an sortu zen. Orduetik, ikasgai teoriko eta praktikoak uztartu ditu eskolak, lanbide baten nondik norakoak irakatsi eta artearekiko joera bultzatzeko.



• CRISTINA BERIARIN

Baztan ●

Euskalgintza aztergai

Baztan-Bidasoako Euskaltzaleen bigarren topaketak maiatzaren 3tik 17ra

Baztan, Malerreka eta Bortzirietako euskara zerbitzuek antolatuta, Baztan-Bidasoako Euskaltzaleen II. Topaketak egingen dira maiatzaren 3tik 17ra, astelehen eta asteazkenetan. Euskaltzaleak elkartzearekin batera, euskalgintza eta euskara bera aztertuko dira bortz emanalditan.



Baztan-Bidasoako Euskaltzaleen II. Topaketa Doneztebeko Juansenea etxean egingen da. ● TTIPI-TTAPA

MAIATZAREN 3AN, ASTE-azkenarekin, emanen zaio hasiera aurtengo Euskaltzaleen Topaketari. Hiru euskara zerbitzuendako Taller de Sociologia enpresak egindako ikerketaren emaitzak —*Euskararen unibertsoa Baztan, Malerreka eta Bortzirietan, 1999*— ezagutaraziko ditu Carlos Vilches soziologoak. Ikerketa kuantitatiboa eta kualitatiboa egin zen joan den urtean zehar hiru haranetako herrietan.

Bigarren saioa maiatzaren 8an izanen da, astelehena. Azken urteotan Malerrekan eta Bortzirietan urtero egin izan da *Euskara Merkataritza* kanpaina. Joan den urte-

an, ordea, ez zen egin, eta horren ordez merkataritza establezimenduetako kontsumitzaileen hizkuntz ohiturak eta jarrerak aztertu ziren Bortzirietan eta Malerrekan. Azterketa horren emaitzak argituko ditu Juango Allurrek, Siadecoko kideak. Bertzeak bertze, merkatariek zein erosleek euskarari ematen dioten garrantzia eta tokia aztertu du Siadecok, aitzinera begira egin beharreko lanaren abiapuntu izan dadin.

Hirugarren hitzaldia eskualdeko herrietan euskara erabiltzeko joeren inguruan izanen da, maiatzaren 10ean. Azken urteotan, udazkenean karrika neurketak egin izan

dituzte euskara zerbitzuek, eta garai batean EKBk egiten zituenean, datu sortak bildu dira. Horiek aztertu dituzte Patri Arburuak, Bortzirietako Euskara Teknikariak, eta Paula Kasaresek, Baztango Teknikariak.

Paula Kasares bera izanen da laugarren solasaldia gidatuko duena. *Hizkuntza ukipeña / ukapena Baztanen* lana prestatu zuen orain zenbait hilabete. Lan hori jendearen aitzinean azaltzen ariko da, maiatzaren 15ean, astelehena.

Azken ekitaldia maiatzaren 17an egingen da. Eskualdean izandako hiru euskara elkarreetako kideak mintzatuko di-

ra, Langarra, Doike eta Erausian taldeetakoak. Mahai inguruan, *Non dira euskara taldeak?* galderari erantzuten ahaleginduko dira hiru talde horietako kideak.

Jardunaldietan parte hartzea dohainik izanen bada ere, lehenagotik izena eman beharko da, hitzaldietan materiala banatuko baita. Izena Baztango, Bortzirietako eta Malerrekan euskara zerbitzuetan eman beharko da, bertara telefonoz deituta maiatzaren 2a baino lehen. Doneztebeko Juansenea etxean egingen dira hitzaldiak, 19:30etik aitzinera.

→ Jon Abril

Basaburua ●

Ekitaldi mordoa udaberri kulturalean

MOTA GUZTIETAKO EKITALDIak loratzen ari dira egun hauetan Basaburuko herrietan. Haran honetako Kultura Batzordeak eta Irkaitz gazte taldeak antolatuta, udaberri osoan izango dira ekitaldiak. Hitzordurik hurbilena astelehenean bertan dago jarrita. Maiatzaren lehenean eskualdeko mendizaleek ibilaldia egingen dute Basaburuko mendietan barrena. Goizeko zortziak inguruan abiatuko dira mendizaleak, bost orduko ibilaldia egitera. Indarrak berritzeko, bazkaria izanen dute inguruko taberna batean.

Maiatzaren 7an umeen eguna ospatuko dute. Arratsaldean Aralar musika eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute Jauntsaratsen dagoen udaletxeko ganbaran. Handik, eskola aldera abiatuko dira jolastera eta txokolate beroa jatera. Kulki animazio taldeak jolasak antolatzeaz arduratuko da. Galtzar dauden aspaldiko jolasak izanen dira, herri kirolak barne. Beraz, horren ume ez direnek ere parte hartzeko eta ongi pasatzeko aukera izanen dute. Maiatzaren 20an, berriz, bertso afaria izanen da Gartzarongo elkartearen.

Ekitaldi nagusia ekainaren 11n izanen da: Basaburuko Eguna. Bertan herri kirolak, antzerkia, dantzariak, herri bazkaria eta musika izanen dira.

→ Txari Eleta

irulegitik

JOJO BIDART



18 urteko konzertazioa debaldetan?

Euskal departamenduaren aldeko esperantza ito ondoren, Frantziako Estatuko agintean ziren sozialistek nahi ukan zuten erakutsi euskaldunen eskakizun legitimoak konduan hartzen zituztela. Lanjerosegia zeukaten instituzio propioen truke, tokiko ekonomiaren garapena eta euskal kulturari buruz zenbait laguntza ekarriko zuen Ravail izeneko lan talde bat muntatu zuten.

Hamar urteren buruan Euskal Herri 2010 proiektio eta garapen Kontseilu famatuek luke segida hartuko. Tokiko hautetsi, azpiegiturako arduradun, partaide sozioekonomiko eta elkarteetako kideen arteko negoziaketa ziklo berri honek Lurraldearen izeneko garapen Eskema moldatuko du.

1997an Iparraldeko Hautetsien Kontseiluak eta ondotik Pirinio Atlantikoko Kontseilu Orokorrek aho

batez norabide nagusiak onartuko dituzte barneko proiektu zorbait murriztuz jadanik.

Erabakirik hartzeko gaitasunik ez duen hautesien delegazio bat igorriko du erakunde politiko erabakitzaileetarak Eskemaren alde itzul dadin.

Azkenean, bide luze honen puntako lehen erabakiak agertzen dira hamazortzi urteren buruan debate, konzertazio eta lan guzien ondorioz.

Zoin ote da? Bauruako portuaren inguruko egiturak eta komunikabideak azkartuko dira. Hobe. Baina edozoin manieraz hori egingen zela pentsa daiteke. Unibersidadeak ukanen duela azkenean aintz urtez ukatua izan zaion garapena. Ongi. Gutxietsi behar ez den irabazte bat dudarik gabe.

Bainan gutienez bi aldetatik itzalak agertzen dira. Kostaldeko hiri eta barnealdeko herri ttipien ar-

teko desoreka handituz doa eta euskara galtzerat ez uzteko xutik ezarri beharra den hizkuntz politika murrizten digute aplikatua izan gabe.

Ihardokitzeak izan dira eta horien aitzinean Estatutak jakinarazi du beste kontratu berezi bat izenpetuko duela Euskal Herriarekin.

Beste bi hilabetez beha egon gintezke hainbeste urtez lanean ari izan ondoan bainan bilana egiteko epea hurbiltzen ari da.

Metodo baikorra izan da partaide guzieren artean Iparraldeari proiektu bat emateko bere lurralde osoan eta bere euskal berezitasuna konduan hartuz. Proiektutik obrarat pasatzeko arazoak daudela denen baitan dago. Iparraldeak bere proiektuak finkatu ditu. Zergatik ez utzi erabakien hartzerat. Nor da demokraziaz beldur?

Elizondo • Udaberriko feria

Zikiro eta gasna lehiaketak izanen dira gaur

Urtero bezala, udaberriko feria egingen da gaur Elizondon. Inguruko eskulangileak bilduko dira euren produktuak agertu eta saltzeko. Merkatuko Plazan, aziendak egonen dira ikusgai.



Baztango eskulangile gehientsuenak bilduko dira gaurko ferian.
● EGUNKARIA

Laugarren urtez egingen da udaberriko feria. Bertako produktuen feria ere deitua, eta inguruko eskulangile gehienak biltzen dira han. Baztango Udala, Bertizko Partzuergoa, Garalur eta Nafarroako Rural Kutxa dira egun berezi honen antolatzaile eta laguntzaileak.

Garai batean, feria honetan aziendak ziren nagusi; denborarekin, gauzak aldatu eta eskulangileek hartu dute lekukoa. Dena den, abeltzainak animaliekin berriro feriarra joatea nahi da, pixkanaka arestian zeukan kutsua berri eskuratzeko. Horretarako, Merkatuko Plazan bilduko dira inguruko abeltzainak, goizeko bederatzietan,

euren behi, ardi, zaldi eta beste hainbeste aziendarekin. Ordu berean, zikiro lehiaketa hasiko da. Ahari zikiratua ahalik eta ondoena prestatzea izanen da helburua. Hamarretatik aurrera zikiro erretzearen erakustaldia izanen da, eta sabela berdintzeko, Baztan Zopak dartzeko aukera izanen da.

Txistulariek emanaldia egingen dute goizeko hamaiketean, eta ordu erdi geroago gasna lehiaketa iraganen da —aurtengo gasna aurkeztuko dute—. Goizeko hamaiketatik ordu bata eta erdietara, eta arratsaldeko bostetatik zor-

tziatar bertako produktuak izanen dira ikusgai Foru Plazan; euria eginez gero, Merkatuko Plazan izanen dira. Feria honetan egurra lantzen, burdina lantzen, artilez jantziak egiten eta saskiak egiten aritzen dira, eta ikusgarria izaten da benetan. Hain ezagunak ez diren eta ordu asko eskatzen duten bestelako eskulanak ere badira, hala nola, belar desberdinekin egindako hainbat produktu.

Feria hau lagungarri zaie eskulangile askori euren produktuak ezagutzera emateko. Ana Urrutia da parte-hartzailetariko bat, eta bere ustez

«ongi daude honelako ekimenak, bertakoek jakin dezaten gazteek ere badutela eskulangileen lanekin jarraitzeko gogoia». Eskulangile laneekin ezin da bizitzeko adina diru ateratu, baina asko laguntzen dio etxeko ekonomiari. Honelako feriek eskulangileen artean loturak sortzeko ere balio dute. Ahoz ahoko kulturak eskulangile hauek ezagutzera ematen ditu

nonahi. Askok hainbat aste daramatzate euren produktuak prestatzen, eskulana gehienetan horretan datzala. Ana Urrutiaren ustez «eskulangintzan toki bakoitzeko kultura islatzen da».

Elizondoko Udaberriko Ferian egingen diren lehiaketa guztien sariak eguerdiko hamabi eta erdietan banatuko dira, eta eguna bukatzeko, Baztango Dantzariak arituko dira, arratsaldeko bost eta erdietan, herriko plazan; zortzietatik hamaiketara, berri, dantzaldia izanen da plazan.

→ Rakek Goñi



herri aldizkariak
Miren Iriarte

Kiko Florenzaren sasoia

Burlatako **Axular elkarteak** plazartzen duen izen bereko aldizkariak Kiko Florenzari elkarrizketa egin dio azken zenbakian. Florenzak 88 urte ditu, eta kirola egiten jarraitzen du. Bere sasoiaren sekretuaz galde egin diote Axularreko kideek: «Gerlako frontean nengoenean komisarioak galdetu zidan ea zertarako egiten nuen korrika, eta atzera egiteko unea ailegatzeko baten ez harrapatzeko erantzun nion. Horri esker bizitza salbatu egin nuen, atzera egin behar izan genuenean. Zaragozatik Fragaraino korrika egin bai-

nuen, ibaia gurutzatu ezin izan nuen eta nazionalek Iruñera preso eramainduten. Burlatara, Iruñean preso egon ondoren etorri nintzen. Osasunak fitxa egin zidan. Atletico de Madrid-Osasuna partida jokatu behar zen, Valentzian. Ni atezaina nintzen. Partida hartan Lehen mailara nork igo behar zuen erabaki behar zen eta guk galdu genuen. Gero, Burlatan negozio bat jarri nuen eta hemen bizi izan naiz geroztik, orain dela 40 urte. Oso lasaia da eta jendeak ezagutzen zaitu. Ez nuke aldatuko».

«Betidanik egin dudana, goizean jeiki, gosaldia (egunero laranja zuku bat bi baratxurirekin) era txandala jarri, 11:00etan Olatzera joan eta itzuli korrika egiten dut, nekatzen banaiz ibiltzen naiz edo gelditzen naiz ariketa batzuk egiteko. Nahiz eta gose gelditu, normalean janen nukeena baino pittin bat gutxiago jaten dut, barazkiak eta janari arina gehien bat. Bazkaldu eta gero kafe bat hartzera joaten naiz eta gero etxera, ez naiz ateratzen, oso bizitza lasaia egiten dut».

Anaia Handia

Etxe batean sarturik gaude. Lehiakideak, ni neu, Bernardo Atxaga, Xabier Lete, Itxaro Borda, Koldo Izagirre, Aingeru Epaltza, eta horrela hamar lagunetako taldea osatu arte. Jendearen morboa gureganatzeko helburuarekin ikuskatzen gaituzten Kameran aurrean biluzten gara gauero. Batzuk neguko arratsalde lanbrotsuez ari dira, malenkoniatsu. Beste batek dektibe euskaldun baten pasadizo atseginak kontatzen ditu. Hurrengoa Obaba herriko ipuinekin jendearen maitasuna bereganatzen saiatzen da. Nik, jendearen botoa neureganatzeko, pose eta galtzontzilo ausartak erabiltzen ditut. Hamar minututik behin dutxan sartzen naiz biluzik. Ohean kanpaia josten dut infragorridun kameran azpian. Ez da aski nonbait. Ikusleen artean aurrez egindako inkestaren estatistikak ez dira nire alde azaltzen. Taktika berri eta erasokor bati lotzen natzaio orduan. Gaztelaniaz idazten hasten naiz. Estatistikak nire alde agertzen hasten dira supitoki. Lehendabiziko astean ikusleek Itxaro Borda Anaia Handitik kanporatzen dute. Gaztelaniaz euskararen kontra idazten hasten naiz orduan. Nire aldeko botoek nabarmenki egiten dute gora. Hurrengo astean Aingeru Epaltza saioa uztera behartzen dute. Madrilgo egunkari batekin harremanetan hasten naiz eta noizbehinkako artikuluak bertan argitaratzen. Gora egiten dut modu esanguratsuan. Xabier Lete, bere arratsalde lanbrotsuak barne, kanporatzen dute orduan. Gaztelaniadunek Nafarroan sufritzen duten diskriminazioaren kontra sutsuki hasten naiz. Ikusleen aginduz Saizarbitoria Anaia Handitik badoa. Saioaren azken txanpan Bernardo eta biok gaude aurrez aurre. Zer ikusiko dute idazle honengan? Saioa amaitzeaz dago! Irabazlearentzat hogeita hamar kilo daude. Aurrez eginiko inkestak Atxagaren alde agertzen dira nabarmenki. Azken gau horretan bere ohearen gainean Ikurrina bat jartzen dut paretan. Bernardok, bere ezjakintasunean, triku gaixo bati buruzko azken olerkia irakurtzen du kamera ahalguztidunen aurrean. Nik, lasai askoan, ohean sartuta zurrunga egiten dut. Hurrengo egunean irabazlea ni naizela esaten dute kate guztietan. Anaia Handiaren semerik kuttunena ni naizela erabaki du ehuneko ehunak. ●

Estanpazioa artearen eskolan

Grabatu eta Estanpazio Tekniken lehen promozioa aurten aterako da Iruñeko Arte Eskolatik

Duela hilabete bat grabatu eta estanpazioko lantegiak inauguratu zituzten Arte Eskolan. Grabatu ikasketak berrienak dira eskolan, duela bi urte ezarriak. Ez dira Arte Eskolako ikasketa bakarrak, baina ikastetxe berezi honen ezaugarriak ezagutzeko baliagarri zaizkigu. Maiatzean irekiko dute Iruñeko Arte Eskolan aurrematrikulazioa egiteko epea.

ARTE ESKOLAN ARTEETAKO BÄTXILERGOA egin daiteke, edo sei ziklo ezberdin: ebanisteria; autoedizioa; argazkigintza artistikoa; dekorazio lanen proiektu eta zuzendaritza; eskulturari aplikatutako arteak; grabatua eta estanpazio teknikak. Eta horiek guziek hainbat tailer edo lantegiren beharra dute. Martxoaren 29an grabatu, litografia, serigrafia eta fotomekanika lantegiak inauguratu zituzten, eta ikasleek horiek muntatzen lagundu zuten.

Kontxesi Vicente serigrafia irakasleak dienez, lantegian arras giro atsegina sortu ohi

da. «Elkarrekin ikasten dute, elkarri laguntza ematen», erran du. «Nahiz eta banakako lana egin behar, elkarren artean egiten dute, elkarri lagunduz». Kontxesik dioenez, lantegian artearekiko joera bultzatzen saiatzen dira.



Hainbat teknika

Bi urteko ziklo honetan grabatuaren eta estanpazioren aukera guztiak ezagutzen dituzte. Grabatzea da zuloak edo ebaketak eginez gainazal batean (harria, zura, metala...) zerbait irudikatzea. Estanpatzea da molde bateko irudia paper, oihal, larru, metal edo bestelako materialetan presio eginez inprimatzea. Baina estanpazio guztiak ez dira grabatuaren bidez egiten, hau da, denak ez dira ebaketa bidez egiten. Adibidez, litografia edo serigrafian ez da matrizean ebaketa egiten. Zikloan teknika guztiak ikasten dituzte.

Aspaldiko eskola

ARTE ETA LANBIDEEN ESKOLA 1828AN SORTU ZEN IRUÑEAN, BAINA bost urte geroago. I. Karlistaldiarekin batera, Udalak erran zuen ezin ziela gastuei aurre egin. Eta 1839 arte ez zen berriz abiatu. Orduan banandurik zegoen eskola. Zati bat Udalak kudeatzen zuen eta bestea Diputazioak. 1873an elkartu ziren biak, eta orduan izan zen bere loraldia. 1890. urte aldera garrantzi handikoa zen. Matrikuletan ikus daiteke Madrildik. Bartzelonatik, Zaragozatik edota Gasteiztik zetozela ikasleak.

1917an Diputazioak Udalari utzi zion eskola, eta horrek, noski, bere eragina izan zuen eskolaren kalitatean. 1936an, gerra dela eta, berriz gelditu zen. 1943an berriz ekin zioten, eskola lau bloketan banatuta: Marraketa Teknikoa (eraikuntza eta marraketa industrialak); Marraketa Artistikoa eta Pintura; Merkataritza (kalkulua eta kontabilitatea); Emakumearen Ikasketak (etxeko dekorazioa eta jantzigintza). Hori horrela izan zen 1972 urtea arte. Orduan Udalak lurzorua jarri, Espainiako Hezkuntza Ministerioak egoitza eraiki, eta bertan ezarri ziren Arte Aplikatuaren Eskola eta Arte eta Lanbideena. Arte Aplikatuaren eta Lanbide Artistikoen Eskola izen arranditsua paratu zioten orduan. Egund, Iruñeko Arte Eskola du izen ofizialtzat. Eskola zaharretik zera jaso dute: marrazketako bi kurtso, pinturako beste bi eta etxeko dekorazioko bat.



Grabatu eta estanpazioko teknika anitz irakasten dute Arte Eskolan. Ikasleek, horiek guztiak ikasi, eta bakoitzarekin edizio bat egin behar dute euren lanaren erakusle.

CRISTINA BERIAIN

Natxo, 21 urteko iruindarra, zikloaren lehen mailan da (ikasketak hasteko gutenez 20 urte izan behar ditu ikasleak). «Klase hauek atseginak dira, praktikoak eta irudimena lantzen laguntzen dute», adierazi du. Martin ere, 21 urteko zarauztarra, lehen mailan da: «Teknikak ikasten ari gara. Teknika piloa dago. Batzuk besteak baino zailagoak dira. Litografia da zailena». Natxo bat dator berarekin. Gustukoena zein duten erraten ez dakite. «Grabatuan gauzak erraz ateratzen dira, eta orduan azkar ikusten duzu zure lanaren emaitza, eta estanpazioa ikustea ongi dago», dio Martinek.

Biek badakite zaila izan dena dutela ikasi duten honetan lan egitea. Nafarroan grafikagintzan aritzen diren lantegiak guti baitira. «Beharbada, lehenbizi tailer batean sartuko gara, eta gero gurea sortuko dugu, gure artea lantzeko», adierazi du Natxok.

Ez ohiko ikastetxea

Litografia lantegiko maisua da Fernanda Alvarez. Bere hitzetan, ziklo artistikoa da hau. «Lan pertsonala egiten dute. Hemendik atera eta tekniko estanpazailleak izan daitezke [adibidez, artistaren batek zerbait estanpatu behar badu, beraiek egin dezake-

Leku falta

EGUN, IRUÑEKO ARTE ESKOLAN 550 BAT ikasle daude: 300 bat ikasketa arautuetan eta gainontzekoak Udalaren ikastaro arautu gabekoetan. Matrikulazioak ezin du gora egin ez dagoelako leku gehiago. Goraino daude. Izan ere, Amaia karrikako eraikina Kontserbatorioekin partekatzen dute. Gela berean musika soinuak entzun daitezke goizez eta marrazketaren inguruko azalpenak arratsaldean. Arte Eskolako zuzendari Juan Antonio Inzak dioenez, Arte Eskolak nahikoa du eraikin horrekin. «Baina Kontserbatorioak beste eraikin bat behar luke gustura eta eroso egoteko».

tej, edo eurak izan daitezke artistak». Bestelako aukera ere badute: ikasten segitzea, hainbat karrera unibertsitario egin baitaitezke Grabatu eta Estanpazio Tekniken goi zikloa egin eta gero. «Guk euren lana egitera bultzatzen ditugu», erran du Fernandak. «Kontua da egiten dutenarekin gustura egotea. Hemen grabatu eta estanpazioko teknika horiek guztiak irakasten dizkiegu, eta gero, egin dezatela gehien gustatzen zaiena».

Jesus Belasko espresio plastiko irakasleak esan duenez, Arte Eskola ez da ohiko ikastetxea: «Oro har, ikasleek interes handiagoa erakusten dute hemen, proposatzen zaientzat erantzuten diote. Hemen sormena eta teknika konplexuko prozesuak uzartzen dira. Ikasleak hori guzti kontrolatu behar du, eta lortzen diren emaitzak erakargarriak dira oso». Arte Eskolatik ateratzen direnak artistak direnik ezin erran, baina horretarako oinarriak ematen dizkiete. Hau gaineratu du ikastetxe zuzendari Juan Antonio Inzak horren harira: «Saiatzen gara, tituluz gain, hezkuntza integrala ematen. Hemendik aterako dena pertsona nahi dugu izatea bizitzan moldatzeko modukoa, kulturaduna».

→ Asier Azpilikueta

Langilearen Eguneko jaia

1965. urtean ospatu zituzten lehenengo aldiz txantrearrek auzoko festak

Armonia Peña eta UDC Txantreak bultzaturiko ekintza kulturalak sortu zituzten. 1965ean, auzoko jaiak. Auzoko patrioiaren eta auzoko lehenengo harria jarri zen eguna martxoaren 19a izan arren, maiatzaren lehena aukeratu zuten bizilagunek jaietarako, Langilearen Eguna.

Ordudunik gauza anitz aldatu dira auzoan, eta jaietako egitaraua ere erabat zabaldu da. Auzoko lehenengo jaiak xarma berezia izan zuten, eta aurten, auzoaren sorrera hainbatetan gogora ekarri dutela eta, 1965ean eginiko lehenengo jaiak ere gogoratu beharra dago.

Txantreako etxebizitzak bizilagunak berak egiten hasi ziren, 1950. urtean, auzoan. Etxeak egindakoan ospakizun bereziak egiten ohi zituzten, jabe berriei etxe berriak emateko. Horiek izan ziren auzoko jaien aurrekariak, eta Txantreak 15 urte bete zituenean txupinazoa bota zuten Produktorearen Etxetik, lehenengo aldiz, 1965eko apirilaren 30ean izan zen.

Txantrea auzoko lehenengo harria 1950eko martxoaren 19an jarri zuten. San Jose egunean, eta, horrenbestez, San Jose dute txantrearrek patroli. Beraz, jai berriak



50. urteurreneko jaiak

Txantreako sorreraren oroimena izanen du aurtengo egun. Txantreako Jai Batzordeak dioen moduan, ezerezez gero auzoa da euren, eta 50 urtetan «primarako aurtu» dute bizilagunak, Iruñerri osoan ospetsuak diren jaiak hasi eta astelehena bitartean, ekitaldi ugari izanen dituzte.

50 urtean, bizilagunen ahalegin eta ilusioek auzo berezi bide Txantrea. Urte hauetan Iruñeko auzoetako jaiak ematen egitea lortu dute txantrearrek, eta 50. urteurren ospakizunaren ajea erabat ahaztu gabe, egitarau mardulatu dute lau egunetarako. Jai aurreko asteko kultur ekitaldi txupinazoari emanen diote gaur lekukoa; horren auzoan eta jota emanaldiak izanen dira.

19:30zuzotegiil Maizterren kortejoa irtingo da, eta ordu erdiko Txupinazoak hasiera emanen die jaiak; Txantreako Kirol taldeak piztuko du suzuria. Gaur gauean, Auzobertan, bertso afaria izanen da Peñagarikano, Maialen bio eta Jokin Sorozabalekin.

Bihar Bazkaria prestatu dute Jai Batzordeko kideek,

eta ondoren, Jarauta 69k dantzarako musika jarriko du. Gauean, Euskara eta Felix plazetan dantzaldiak izanen dira. Hurrengo egunean, igandean, ohiko kalderete lehiaketa izanen da, Irubide parkean; arratsaldean, herri kirolak eta antzerki emanaldiak izanen dira. Langilearen egunarekin batera amaituko dira 2000. urteko Txantreako jaiak. Goizeko 11:00etan erraldioen bilkura izanen da, eta gero, ajoarriero lehiaketa, Txantrea plazan. 21:30ean azken zezensuzkoa. Bihartik hasita, egunero dianak izanen dira, goizeko 9:00etan; eta gauko 22:00etan, zezensuzkoa.

50. urteurrenaren ospakizuneko egitarauak berrikuntza ugari ekarri ditu. Larunbatean laia lasterketa eta erakusketa izanen da, Artaxona eta Garesko gazteen eskutik; gainera, Txantreako mendi taldeak eskalada egiteko lekuak atonduko ditu Ezkaba mendiko hegaletan. 50. urteurrena dela eta, Iruñeko auzoek ez dute Alde Zaharrean egingen Maizterren jaiak; aurten Txantrea izanen da jaiaren erdigune. Egunean zeharreko ekintzak indartu nahi izan ditu Batzordeak, auzoko bizilagun guztien parte-hartzea bultzatzeko.

ospatzeko egun hobereana martxoaren 19a bera zen garai hartako elizarentzat. Haatik, bizilagunak langilearen borroka aldarrikatu nahi izan zuten, eta maiatzaren lehenengo ezarri zituzten jaiak. Langilearen Egunean. Erabakiaren aurka inork egin ez, eta maiatzaren lehenengo inguruan ospatu dute ordudunik jaiak.

Hogeita hamabost urtetan izugarri aldatu eta handitu da auzoa, eta jaiak ere aldatu dira. Azken urteotako ospakizunak orduan baino askoz ere jende eta ekitaldi gehiago bildu dituzte. Lehenengo urteko jaiak

Armonia Peña eta UDC Txantrea taldeek bultzaturik sortu ziren, eta egitarau txikia prestatu zuen orduan jai batzordeak.

Urmeneta Iruñeko orduko alkateak egin zuen agurra, eta txupinazoarekin hasi zituzten jaiak. Txistulariak, dantzariak eta bonba japoniarak izan ziren garai hartako egitarauan, baita su artifizialak ere. Pilota partiduak eta dantzaldiak ere izan ziren orduan, gaurkoak baino lasaigoak, eta jende gutxiagorekin, baina jaiak ziren orduan ere.

→ Miren Iriarte

Jai batzordea, 1978tik

Hasieran Txantreako talde eta elkarteek prestatzen zituzten jaiak; 1965etik urtero-urtero hilabete batzuk lehenago elkartu eta egitarau antolatzen jarduten zuten. Baina antolakuntza hobetzeko eta lanaren emaitzak indartzeko, jai batzorde iraunkorra osatu zuten 1978an txantrearrek.

Jai batzorde sortu berriak hartu zuen bere gain auzoan ospatzen ohi ziren hainbat ekintza antolatzeko ardura, eta ordutik gero eta ekitaldi gehiago eta hobeak izan dituzte auzoan. Eguberriek, Olen-tzerok, San Joan suek, Inauteriek, eta, azken urteotan, Gazte Asteak, Euskal Asteak eta Txantreako Eguna 1978tik lanean izan den batzorde horri esker egin dute aurrera. Lan handia egin dute, auzoaren bizitza indartu dute, baina urte hauetan guztietan trabak ere izan dituzte.

1981ean gobernadoreak jaiak debekatu egin zituen; 1984an jai batzordeko kide gehienak espetxeratu egin zituzten; antolaturiko hainbat ekintzatan Polizia oldartu izan zaie. Hala ere, 160 pertsona baino gehiago izan dira lanean, bizilagunen laguntza ekonomikoa lortu dute, huts egin gabe heldu dira 2000. urtera, eta aurten ere jaiak izanen dira berriro Txantrean.

Txantreako haurrak, txupinazoaren ondoren gozokiak hartzen, eta Txantreako Erraldioen Konpartsa, 1997ko jaietan

JOXE LACALLE



HARPEA TABERNA
 Harriurdineta, 2-3 TXANTREA
 Afari bereziak aurretik deituta. Tel.: 948 14 50 30

ZAZP
 LIBURUJENDIA + OKI JENDIA +
 SOMINOLAJENDIA + ... ES.
 Oki Pasa!!
 Miravalles karrika-9. TX
 TLFNOA. 148407

YOSELEN KAFETEGIA
 Era askotako pintxoak, bokatak eta afariak
Zorionak !!!
 Ezkabako plaza - TXANTREA

EZKABA TABERNA
 ZORIONAK!
 •GOSARIAK-BAZKARIAK•
 •AFARIAK•
 Ezkaba plazan

TXANTREKO HERRIKOIA
ZURGGAI
 Jaiak bai borroka ere bai

KORIMENO TABERNA
 BOKATA IRAULTZAILEAK
 JAI AURRERA ERAMATEKO
 Lesaka kalea, 5 TXANTREA
Jai zoriontsuak!

Sorgiñe
 TABERNA - KAFETEGIA
 JAI ZORIONTSUAK

AKELARRE
 Kontzertuak, bilarra, futbolina
 Festa zoriontsuak opa dizkizuegu
 Lesaka, 5. - Tel.: 948 13 42 05 - e-mail: akelarretx@wanadoo.es
 Web orria: <http://perso.wanadoo.es/akelarretx>

TXANTREKO TXOSNEN BATZORDEAK
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE
Aupa Txantrea!



Nafar Kronika

Gontzal Agote

Haiek baino gehiago gara

Ez da kopuru kontua, kalitate kontua baizik. Agian ez gara haiek baino indartsuago, politago, trebeago edota ederrago izango. Baina zu eta biok, balizko irakurle kuttuna, abantaila bat dugu, askotan ohargabeen izaten duguna baina, azken finean, haiek baino gehiago egiten gaituena.

Erdaldunen arabera, elebidunok bi «mihi» dugu, horrela batekin hitz egiten dugun bitartean, besteekin nahi duguna miazkatu ahal dugu. Era berean, bi hizkuntza (edo gehiago) menperatzen dugun momentu, egoera edo gure nahien arabera gure komunikazio modua moldatu eta aukeratu ahal dugu. Espainolez edo euskaraz. Frantsesez edo euskaraz. Ingelesez edo euskaraz. Japonieraz edo euskaraz. Eta abar edo euskaraz.

Ziur aski gutariko askok Sanz, Lizarbe edo Perez Pradosek baino hobeto hitz egin eta idatziko dugu gaztelera. Eta euskaraz are zurrerago. Haiek irakurtzen dituzten liburuak irakurtzen ditugu espainolez. Galeano eta Delibes jatorrizko hizkuntzan: egunkariak, ustezko nafarra baita madrildarrak eta mexikarrak ere; telezaborra haien hizkuntzan irensteko gai gara eta, behar izanez gero, unibertsitatean karrera osoa ikasteko ere.

Kultura unibertsalaren babesle hauek, ordea, ezin izango dute Sarrionandia edo Montoiaren lan literarioaren berririk izan, egunkari hau ez dute inoiz irakurriko eta ETBk eskaintzen dituen futbol partidu aspergarriak iratiaren laguntzaz segitu beharko dituzte. Unibertsitate euskalduna imajinezina zaie. Oso jende prestatua direla esango digute, baina guk haiek egiten duten guztia eta askoz gehiago egin ahaliko genuke (haien modukoak izan nahiko bagenu, bederen).

Hau guztia ez da harrokeria, harrotasunez bete behar gaituen errealitatea baizik. Euskaldunok, euskaldunak izate hutsagatik, pertsonaia hauek baino gehiago gara, baliabide gehiagoren jabe. Guretzat hau ez da arazoa, jakina; haientzat bai, eta handia gainera. Inbidia ote?, horretan gaude.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Iruñea:** La Fam Mafia eta Inventario rap taldeek kontzertua emanen dute bihar, 21:00etan, Donegal tabernan.
- **Burlata:** Ostegunean, Sebas Molina eta bere taldeak jazz-flamenko musika emanaldi eskainiko dute, Bego-Begon, 20:00etan.

HITZALDIAK

- **Burlata:** Askagintzak eta euskara taldeak antolatuta, *Atsedetik ez drogarik gabe* izeneko kafe solasaldia izanen da bihar, 17:00etan, Bogart tabernan.

ANTZERKIA

- **Mutiloagoiti:** Txirristra taldeak haurrentzako *Zergatik? Zergatik?* txotxongilo lana antzeztuko du gaur, 18:45ean, Eguzki plazako auditoriumean.
- **Zangoza:** Bihar, 18:00etan, *Enperadorearen jantzi berria* haurrentzako antzezlana eskainiko du Gus Marionetas taldeak, Kultur Etxean.

BERTSOLARIAK

- **Iruñea:** Gaur, 21:30etik aurrera, bertso afaria izanen da Txantreako Auzotegin, Maialen Lujanbio, Jokin Sorozabal eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolariekin.
- **Ahetze:** Bihar Mattin Sariaren finalean ariko dira Miren Artetxe, Xabier Paya, Amets Arzallus, Sustrai Kolina, Beñat Lizaso, Iñaki Bazterretxea, Eneritz Zabaleta eta Xabier Terreros.

ERAKUSKETAK

- **Tafalla:** Javier Zubiriren *Uxe, romeria milenaria* izeneko argazki erakusketa asteartea

arte bisita daiteke, Kultur Etxean.

- **Elizondo:** Hamabi ordu euskaraz besteren karietara, maiatzaren 7 arte ikusgai dago Arizkunenea kultur etxean jantzien inguruko erakusketabat.

- **Mutiloagoiti:** Jose Ramon Sanchezen *Don Quijote de la Mancha* olio lanen erakusketak maiatzaren 8 arte dago ikusgai, Kultur Etxean; lanegunetan, 18:00etatik 21:00etara, eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara.

LEHIAKETAK

- **Baztan:** Bihar bukatzen da aurtengo Baztandarren Biltzarra iragarriko duen kartel lehiaketan parte hartzeko epea. Kartelak honako testua izan beharko du: "Baztandarren Biltzarra 00. Elizondon uztailearen 16an. Eskuarak batzen gaitu". Neurriak 50 x 70 zm-koak izanen dira asko jota. Kartelak honako helbidera bidali behar dira: Baztandarren Biltzarra, 22 P.K., 31700 Elizondo.

- **Burlata:** Jaietako kartel lehiaketarako lanak aurkezteko epea ekainaren 16an bukatuko da. Partaide bakoitzak gehienez bi lan aurkeztu ahal ditu. Neurriak 100x70zm-koak dira eta honako testua paratu behar da: Burlada, 14 al 21 de agosto de 2000 - Burlata, 2000ko abuztuaren 14tik 20ra. Derrigorrezkoa da herriko armarrria agertzea. Irabazleak 150.000 pezetako saria eramanen du.



Karpov on the rocks

Kostata baina lortu dugu argazkia. Anatoli Karpov xake jokalarari entzutetsua duela hilabete bat izan zen gure artean. Paz de Ziganda ikastolaren xake txapelketa inauguratzera etorri zen, baina bertelako konpromisoak ere izan zituen. Hala nola, Iruñeko Gazteluleku elkarte gastronomikoan afaltzera "behartu" zuten. Egia errateko, Karpov bapo bete zen. Pello Mariñelarena ikastoletako lehenakariak kokozpekoa jarri zion aurretik xakelari uniformea zikin ez zezan. Ordainean, Karpovek Campani laranja zukuarekin eskatu zuen edateko. Gaztelulekun edari hori ez zutela eta, beheko tabernara joan behar izan zuten Karpoven nahia asetzeko. Pasartea gogon, Gaztelulekuko kideek erabaki berri dute heldu diren sanferminetan Karpov izeneko edaria zerbitzatuko dutela.